



2008KO OTSAILAREN 13KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko otsailaren hamahiruan, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko urtarrilaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 12 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedienteen dagoena, HOGEITA HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (30.787,29 €, -)takoa eta 2008 ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun faktura zerrenda, bere espedienteen dagoena, EHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (135.990,85 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 385 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua gehitzea, astean 6 egun eta eguneko 2 ordutatik astean 6 egun eta egunean hiru ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuen %8 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 850 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean ehun eta hirurogeita bost (165,00 €) ematea, otsailetik maiatzera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 847 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko lagutzetatik baja ematea, oinarrizko emantzipazio errenta jasotzeko eskaera egin behar duelako.

...///...

- 824 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko lagutzetatik baja ematea, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Antzar Korrikalariak elkarteak, abenduaren 2an Lazkaon antolatutako "eskolarteko eta federatu mailako kros txapelketa"rako egindako dirulaguntza ikusirik eta Kirol zinegotziak izenpetutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien adostanarekin, bederatziehun (900 €) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

- Lazkao Kirol Elkarteko Futbol Sailak, Harizti Handi futbol zelaiko mantenu lanak egiten ditu. Hori dela eta, lan horiek aurrera eramateagatik udalari dirulaguntza eskatu dio. Dirulaguntza eskaera hori ikusirik, eta Kirol batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, sei mila (6.000 €) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

V.- KIROLDEGIKO IDEIEN LEHIAKETAKO PARTEHARTZAILEEI KALTEORDAINAK.-

Kiroldegiko Ideien Lehiaketa hutsik uztea ebatzi da. Dena den ideien lehiaketako kontratazio mahaiak, konstarazi du aztertutako bost proposamenetatik lauk aipamena egiteko adinako ahalegina egin dutela, eta ez horrela bosgarrenak, azken honek plegu teknikoak eskatzen zuen dokumentazioaren definizio maila ez duela betetzen ikusten bai da.

Hau horrela, Alkateak, proposatzen du lehiaketa ideia honetan aurrikusitako diruzko sarien zenbatekoak, guztira lau mila eta zortziehun euro (4.800 €), aipatu lau lehiatzaileen artean banatzea, lauei zenbateko berdina emanez, egindako lanaren kalteordain gisa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia azertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, proposamena onartzea erabakitzen du eta beraz Kiroldegiairen Birmoldaketarako Ideien Lehiaketara aurkeztutako ondoren zerrendatutako lehiatzaileei ondorengo kalteordainak ematea:

<u>Lehiatzailea</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Ramón Ruíz-Cuevas Peña arkitektoa	1.200 €
Xabier Arruabarrena Oiarbide arkitektoa	1.200 €
Jon Begiristain Mitxelena arkitektoa	1.200 €
LKS INGENIERIA, S. Coop., Fco. Javier de la Fuente	
Carazo arkitektoak ordezkaturak	1.200 €

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

